

Arabak, bere lurraldean eta historian —betidanik, esan ohi den bezala— bizirik izan du euskara. Esan behar da, gainera, herrialde hau kultura, hizkuntza eta herrientzat topaleku irekia izan dela gizaldietan: zinezko topaleku emankorra iraganean, eta halakoxea gaur egun ere.


Harreman horiengatik, joanetorri handiko gorabeherak ezagutu ditu euskaldungo arabarrak: batzutan indarberritu eta hedatz; bestetan, osteria, lurra eta hiztunak galduz. Izan ere, kanpoko haizeetara oso zabalik

aurkitu da beti Arabako zenbait eskualde. Alde honetatik, Nafarroako Erriberaren antzeko historia da Arabarenare ere, hegoaldean batik-bat.

Hizkuntz ibilaldi honen historia laburtu bat aurkeztu nahi dugu orrialde hauetan, erdaraz ere gaur eguneko egoera soziolinguistikoaz zertxobait esaten dugun bitartean. Horretarako, ikus dezagun, lehenengo, oraindik ere historiaren lekuko bizia dugun zenbait datu jakingarri.

TOPONIMIA VASCA EN LA RIOJA

Al Sur del Ebro, particularmente en la Alta Rioja (Ezcaray, Ojacastro, etc.) hay una alta densidad de nombres de lugar de origen euskérico: es el resultado del repoblamiento de la región por inmigrantes de habla vasca, a partir del siglo X en adelante. En el mapa quedan señaladas en rojo las poblaciones en las que se ha constatado toponimia de tal naturaleza.



Behin baino gehiagotan azpimarratu den bezala, herritar xumeek bereziki “arabar” bezala ikusi dituzte Arabako herri eta lurretako euskal lekuizenak. Bestalde, jakitun eta ikertzaileek ere lan gaitza egin dute Araban berorien bilketan.

Kasu honetan, batez ere Lz. de Gereñuk egin du tokian tokiko izen handi eta txikarren bilaketa-lana, dozenaka mila izen geografiko eta historiko metatzeraino: nahikoa da *Toponimia Alavesa* eta bere gainerako obren azken argitalpena ikustea (Bilbo: Euskaltzaindia, 1989). Eta, harekin batera, beste hainbatek osatu ahal izan du zeregin hori Arabako lurretan: Grandes, Ruiz de Larrinaga, O. Apraiz, Caro Baroja, Mitxelena, Zierbide, Gz. Salazar, Ruiz Urrestarazu, E. Knörr.

Mendi eta haranetan, herrixka eta xokoetan, euskal izenek ez dute galdu beren jatorriaren usain gozoa: hainbat iturri-ondotan ereinda daude izenak (*Iturbidea*, 1530; *Iturburua* edo *Iturgaina*, 1708; *Iturraran*, 1676), berdin larre eta larrainetan (*Larrachoa*, 1696; *Larraguibel*, 1706; *Larramburu*, 1770; *Larranguren*, 1768); edo erreka eta ibarretan (*Recabarria*, 1865; *Recabitartea*, 1633; *Recaliorra*, 1677; *Ibarrecolandea*, 1696; *Ibarbaltz*; *Ibarlucea*, 1710), nahiz bide eta zubi-inguruetan (*Bidaburu*, 1722; *Bidaluce*, 1894; *Bideberdea*, 1635; *Bidechiquerra*, 1716; *Zubicoerrotea*, 1719; *Zubichoetasacona*, 1704), etab.

Euskara ahantzi edo jaso ez duten arabarrentzat ere lekuizenen altxor horretan egon da herrialdeko jatorrizko hizkuntza honen oroigarirrik jatorrenetako bat, izan ere toponimia historiaren eta hizkuntz argibideen harrobi aberatsa izan baita Araban, beste nonahi bezalatsu edo gehiago.

Maiz izendegi arabar hau datagarria denez, agirieta mendez mende segi liteke, eta ikusiko dugunez, kasu batzuetan historiako une jakinetako Arabaren geografia zabala kartografian finkatzeraino iritsi da. Hortaz, berezko balio onomastiko soilari, historikoa eta geografikoa gehitzen zaizkio izendegi honetan.

Toponimia horrez gain, gaurko arabarrentzat, euskararen oriomenerako bigarren argia, hizkuntza honek Arabako gaztelanian mailegatuta utzi duen hiztegia da. F. Baraibarrek bildu zuen liburu ongi landu batean bigarren ondare hau (*Vocabulario*, 1903), eta geroztik Gereñu bera (*Voces alavesas*, 1958) eta beste ere bilketa osatuz joan dira: *abarra*, *arangoori*, *atorra*, *bustina*, *gastambera*... Arabako gaztelaniazko hitzak dira, baina nornahik euskal jatorrikoak deritzenak.

Zenbait lekutan familietako arbaso euskaldunen oroitzapenak, eta beste euskarri bizi hauek tarteko direla, modu ezberdinetan agertu izan da Araban euskararekiko oroi men historikoa, herriagan bezala eskolatuen artean, izan ere bestelakorik nahita ere, zaila baitzen historia horretatik ihes egitea. Eman diezaiogun, ba, kondairari begiratu bat.

ENSEÑANZA BILINGÜE

Desde el siglo XVIII los intelectuales alaveses propugnaron la introducción del euskera en la Enseñanza, y fueron ellos precisamente los pioneros de esta idea en el País Vasco. En 1963 se abrió la ikastola Olabide (Gasteiz), a la que seguirían otras en las décadas siguientes; a partir de 1979 se ha generalizado la escuela pública bilingüe. En la foto, las ikastolas Olabide, Assa (Lapuebla de Labarka) e Ikasbidea (Durana).

3



Erroma gurera aurretik gainerako zenbait euskal herrialdetan bezala Arabako euskararen lehen albisteak nahiko lausoak gertatzen zaizkigu, orduko lehen "jatorrizko" bizilagunenak bezalatsu. Hala ere, gaur arte baliozkotzat jo behar da, Arabako eskualdeak ere —gehienbat edo ia osorik— euskaldunak zirela zioen iritzia. Ondoko mendeetako egoera demolingüistika hobeki argitzen duenez, esan dezakegu berori gertatzen dela hipotesirik "ekonomikoena" eta itxurazkoena.

Badakigu —idazle klasikoei esker— Erroma hona iritsi orduko, Arabako lurraldea biztanleztatzen zutenak zeintzu jende ziren: barduliar, karistiar, autrigoin eta beroinak. Azken hauek izan ezik, lehenengo hiru taldeak Bizkai-Gipuzkoetako kostaldetik barne-hegoalderantz hedatzen ziren elkarren parekide, Ebro aldetik iparralderantz

hedatutako beroinekin topo egiteraino, eta, denen artean, horrela Araba osoa estaliz. Berrikitan E. Knörrek, toponimiaz baliatuz eman dizkigu antzinako Araba barneko muga etnolingüistikoak.

Arabako tribu horien mintzaeraz esan litekeena zera da: karistiar-barduliarra euskaldunak zirela, autrigoinak ere bai (denak ziurrenik euskaldun bakarrik ez baldin baziren ere), eta beroinak kulturaz eta hizkuntzaz zeltatzat eman litezkeela (bestelako iritziren bat falta ez izan arren). Horrela dago, ba, gaur egun tribu edo *gentes* haien euskaltasuna definituta.

| Topónimos de Alava | Topón. de otros territorios |
|------------------------|-----------------------------|
| Anduiahin* | Andoain |
| Angelu* | Angelu (L) |
| Asparrena | Asparrena (N) |
| | Hazparne (L) |
| Aretxabaleta (Gasteiz) | Aretxabaleta (G) |
| Etxabarri | Etxabarri (B, N) |
| | Etxeberri (G, N) |
| Gernica* | Gernika (B) |
| Hermua | Ermua (B) |
| Iurre (Gasteiz) | Iurre (B, G) |
| Lasarte/Lassarte* | Lasarte (G) |

ALAVA: TERRITORIO DE UN PAÍS

Una misma lengua, el euskera, ha salpicado a veces con los mismos nombres —idénticos o con variantes dialectales— los diversos territorios de lengua vasca. Alava no es una excepción.

Esta reiteración es una expresiva manifestación de esta comunidad lingüística del País Vasco.

Señalamos con asterisco (*) los topónimos recogidos de la Reja de San Millán (1025). B = Bizkaia, G = Gipuzkoa, L = Labord, N = Navarra.

Zaila edo ezina da arkeologiaren hezur, zeramika edo antzeko hondakinetatik garaiko hizkuntzei buruz zerbait argi eta ziurrik barruntatu ahal izatea. Eta hemengo gure kasuan ere halatsu gertatzen da; baina arkeologiaren bestelako zenbait aurkikundetan, badago hizkuntzez ere zerbait adieraz dezakeenik: oroitarietako idazkun edo garaiko moneta idatzietan, esate baterako.


Arabaren kasuan, esan dezagun numinasmatikak ez duela ekarpen estimagarriken apena egin; baina bai nahikoa ugari bildu diren hondakin epigrafikoek. M.L. Albertosen lana erabakiorra izan da alor honetan.

Aurkikunde hauen aitzinean, ordea, ikertzaileetan bizia izan da eztabaidea: nola eta zenbateraino balio dute mundu indoeuropeoaren idatzitik batik-bat datozen oroitarietako testuek, haren aurretikoa eta ondoko mundu mintzatu euskaldun iraunkorra ere ezagutzea?

Jatorrizko euskaldurgoaren hizkuntz erresistentziak (ondoko mendeetan nabaritasun argiz agertuko denak) pisurik handiena du ikertzaileen baitan lehenagoko garai haien ere ulertzeko. Erroma hemendik pasatu baitzen, baina euskararen ahotsa itoarazteria iritsi gabe, ordea, eta horrek ez du antzik hemen berton indoeuropear eta iberiarrekin gertatu zenarekin.

GERARDO LZ. DE GUERÉNU

El investigador Gerardo López de Guereñu ha acumulado a lo largo de la vida copiosos materiales del léxico y la toponimia alaveses (*Voces alavesas*, 1958; *Toponimia alavesa*, 1956-1983). Su trabajo ha sido calificado de ejemplar, por razón de su objetividad y rigor en la recogida. Valga su presencia aquí como homenaje a los investigadores alaveses que han desvelado también el pasado euskérico de la provincia.



Erromatarren etorrerarekin, Euskal Herriko eta inguruetaiko herri eta kulturen albisteak ugaritu egiten zaizkigu, are gehiago erromatartzeak halako jite biziagoa izan duen Araba bezalako eskualdeetan.

6

Idazle klasikoek hemengo jatorrizko herriez zerbait esan baldin bazuten ere, batikbat bertako erromatartze-prozesuaren berri eman ziguten berezikiago beren idazlanetan. Eta arkeologia bera ere, hizkuntzekiko laga ditzakeen hondakinetan gizarte erromatartu eta latindua ari da, gehienbat, jatorrizko herriez baino.



ALAVA SEGUN LA "REJA" DE SAN MILLAN (Año 1.025)

| | |
|--|-----------------------|
| | Territorio mencionado |
| | Límite etno-dialectal |
| | Límite intercomarcal |
| | Comarca no mencionada |

PUEBLOS DE ALAVA (1025)

La llamada "Reja" de San Millán reúne los nombres de las poblaciones que pagaban una contribución en hierro al monasterio del que dependían (el de San Millán de la Cogolla, La Rioja). Desde hace un siglo, diversos investigadores han estudiado este documento medieval (Fita, Caro Baroja, Michelena, Knörr, etc.). La relación de las poblaciones mencionadas en el documento han permitido dibujar el mapa con toponomía de hace casi un milenio. (Mapa: elaboración propia sobre cartografía de Caro Baroja y E. Knörr).

Estrabon, Zesar, Plinio edo Melak dituzten testuak behin eta berriz aztertu dira historilarien artean, erromatarren etorrera-uneko egoera ezagutzeko ezezik, baita ondoko belaunetan izandako aldakuntzen berririk jakiteko ere (K.a.I-K.o. III). Sarritan, Iberiaz edo Galiez ziotenaz jabetzeko izan da testu-azterketa hori, baina bestetan baita Euskal Herri historikoaz (eta gaurkoaz) albiste literariorik ahalik aberatsenak biltzeko ere. Azken bi hamarkadetan (Europa eta Frantzia-Espanietan), biltzarre eta argitalpen ugari egin da Erromak menperatu ahal izan zituen herriez, eta berauen asimilazio-prozesuaz eta erresistentziaz.

Arazoak interes berezia du Euskal Herriaren kasuan, guretzat ezezik, historia hartaz arduratu guztientzat ere, erresistentzia haren emaitzek luze-zabal iraun baitute gure artean, gertatutakoaren lekuko esanahitsuena euskara bera dugula. Eta gertabide horretan, Arabako euskaldungoaren historiak —kulturarteko ukipen-leku izanik— ez du interesik txikiena. Ez da, beraz, harritzeko ikertzaleek Arabaz ere puntu honetan erakutsi duten jakin-mina.

Erroma hona iristean eta ondoko mendeetako erromatartzean, Araba bereziki irekita aurkitu zen korronte berrira, batez ere lehendik ere indoeuropartzek ukituta zituen lurralte lauetan.

Hemen ere, nonahi eta Nafarroa hurbilean bezalatsu, erromatartzeak ohizko tresna ezagunak izan zituen: hiriak (Iruñako *oppidum-a*, *Suessatio*, *Tullonio*, *Veleia*, adibidez), galtzadak (*Asturica-Burdigala-koa*, eta berau iparraldetik hegoaldera zeharkatzen zutenak), armada, eta ekonomia, zuzenbidea, kultura, hizkuntza latinoa... Araban erromatartzeak eragin zuen latintzea nabaria

izan zen, aurkitutako epigrafian soma daitekeenez (nahiz eta berorren esanahi antropologiko-kulturala doitasunez neurtea erraza ez izan).

Erromaren azken mendeetan (K.o. II-IV), Erromatartzearen ondorio linguistikoak oso presente zeuden Arabako lurretan: euskara zenbait lekutan desagertu ez baten, horren arriskua ez zen urrun izan, eta zenbait bizilagunetan elebitasun eusko-latinoak aski finkatua izan behar zuen, itxuraz. Dena den, aurreko milakadako mintzaera zeltikoen hondarrak erabat galdu ziren bitartean, euskarak funtsean eutsi egin zion bereari.

LA HOYA

Alava, país abierto y acogedor, conoció ya desde la segunda mitad del II milenio a.C. la llegada de gentes nuevas. La presencia de pueblos indoeuropeos y/o de cultura indoeuropea se hace patente en yacimientos como el de La Hoya (junto a Laguardia). Más tarde llegarían también grupos celtíberos. Todo ello configuró, antes de la llegada romana, el contexto plurilingüe de Alava.



8
Erromak behera egitean, kristautzearekin bigarren latintze-aldia etorri zen mendebaldeko herrien gainera, eta Arabako euskaldunak ez ziren olatu horretatik albora gelditu. Arrisku berri bat zen hori hizkuntzarentzat, azpimarratu izan denez. Bain, gaizki ezagutzen ditugun arrazoiengatik, euskal gizartea orduantxe azaldu zen biziki indartsu (IV-VIII. mendeetan), eta indarberritze demografikoren baten gain burutu zen euskaldungoaren eta euskararen hedapena, lehenik Araban, baina ez hemen bakarrik.

1930aren inguruan inork gutxik gogoratzen zuen Ebrotik hegoaldean bizi izandako Errioxa Garaiko euskararen historia: egia esan, ia inork ez zekien historia hartaz ezer; baina 1930eko hamarkadatik hona ezagutza eta ziurtasun berriak ditugu Ebroz haraindiko euskal lurrarde haietaz. Merino Urrutia ikertzailearen lanari esker, handik desagertutako euskarak bertako lekuizenetan aurkitu du bizirik guri hitz egiteko ahotsa.



Antzinateko Errioxa ez-arabarrean euskarak izan zuen lekuaz eztabaiderik izan bada ere, gaur egun argi dago Erdi Arokoaz dakiguna: Ebrotik hegoaldera lurralte zabala biztanleztatu zuten euskaldunek, eta mendetan iraun zuen han euskarak (agian X.aren aurretik Berant Erdi Aroraino). Horren ondorioz, Araba euskararen barne-lurralte bilakatu zen orduan, eta ez, maizegi uste izan dugunaren arabera, hegoaldean euskararen azken mugalde. O. Apraizen mapak ongi jaso du barne-lurraldetasun hori.

Arabarrek eskuhartze zuzena eta bortitzazan zuten euskararen orduko hedakuntzan, jendez eta euskalkiz, eta Burgos eta Errioxa Garaiko lurretan Arabako euskara izan zen batik-bat zabaldu zena. Horregatik, Ebroren alde bietako Errioxetan kideko toponimia idoro zitekeen, eta daiteke gaur egun ere.


Mitxelenak espreski hitz egin zuen Erdi Aroko euskara arabarrari buruz, aztergaiaaren zenbait alde arakatuz. Orduko albiste historikoak jakiteko langai ezberdinez baliatu izan da hizkuntz historilaria: besteak beste, Arabako toponimia historikoaz eta pertsonaizenak jaso dituzten Araba inguruetaiko monastegi-kartularioez.

IRUÑA (Trespuentes)

Los restos del oppidum romano de Iruña, junto a Trespuentes, son el testimonio más expresivo de la romanización de las tierras alavesas. El euskera convivió durante siglos con el latín: aparecieron grupos bilingües latino-euskaldunes que evolucionaron hacia un monolingüismo latino, al mismo tiempo que pasaban directamente al euskera multitud de préstamos y rasgos del latín.

GEOGRAFIA HISTORICA DEL EUSKERA

Con los datos dispersos disponibles O. de Apraiz pudo confeccionar este mapa geo-histórico del euskera en Alava y las dos Riojas. El período contemplado abarca desde el siglo XIII hasta nuestros días. Las correcciones y perfeccionamientos de detalle irán de la mano de las nuevas investigaciones, entre tanto este mapa, en su globalidad, expresa adecuadamente un proceso cultural resistente y de "larga duración". La aceleración de la pérdida del euskera es más bien reciente.



Erdi Aroko Araba euskaldunaren geografia historikora mendez mende zehaztasunez hurbiltzea ez da arazo samurra jakitunentzat. Antzinatean eta Erdi Aroan euskararen lurralte-barrutia egonkorra izan zela uste du Zierbidek; eta Araban segidatasun historiko hori segurtaturik egon zela gogoratu du Caro Barojak. Araba mendebaldeko eta Kantabria/Toloñoko hegoaldeko lurralte goiz erromantzuak izan ezik, euskalduna izan zen Araba Aroan zehar, XIII-XV. etan euskal lurraldea atzera bilduz etorri arren.

Euskaltasun horren adierazgarri da Erdi Aroko hainbat agiritako euskal lekuizenekin marrazten den Arabako geografia: Donemiliagako Kartulario (920) edo “Erreja” deituko datuekin (1025), 1257ko agiri edo Tarifarako lagundi zuten herrien zerrendako albisteekin (1295). Batez ere azpimarratzeko da hizkuntzalari eta historilariek euskal izendegi erdiarotarra eta orduko euskal hizkera ezagutzeko “Erreja” horri atera dioten etekina.



Baina hori dena horrela dela ere, Erdi Aroan jaio zitzaion ondoan Arabako euskarari gerora lehiakide bortitzta bilakatu zen beste hizkuntza bat: gaztelania. Lehenago hizkuntza indoeuroparrak eta latina bezala, orain barneko eta etxeko auzolaguna izan zen gaztelania Araban. Elkarren lehiakide hauek, ordea, baliabide sozio-kultural desberdiniek biziko ziren ia milakada oso batean, gure egunak arte.

Euskarari lurra janez, gaztelaniak Errioxa Garaian eta Araban erakutsi zuen aurrera-indarra —eta euskararen ahuldadea— arrazoi hauetan ikusi izan da: Gaztelarekin Arabaren bateratze politikoan, noblezia arabarrak harako izan zuen joeran, Araba bezalako lurralte ireki batean harremanetarako erromantzeak ematen zituen erraztasunetan, mundu ofizial eta idatzian gaztelaniari eman zitzaion nagusitasunean, etab. Gaztelaniaren sorterrietatik (Burgosko iparralde eta Errioxatik) hasi zen sartzen gaztelania, XI. mendetik aurrera.

Erdi Aroa amaitzean zegoela, Ebrotik hegoaldean ez zegoen euskaldunik, Arabako bi Erriberetan apena eta ezta mendebaldean ere. Bi hizkuntzen arteko muga Lizarratik Trebiñora zihoa Kantabriako mendikatea muga-euskarri zela.

GASTEIZ (s. XVI)

En la Edad Moderna, Gasteiz —aunque rodeada de poblaciones vascófonas— hubo de ser un punto avanzado de romance al norte de los Montes de Vitoria. No obstante, en 1572 las clases populares utilizaban el euskera de forma habitual, según el viajero italiano Venturino.

Esan bezala, Erdi Aroan Arabako euskarak hedakuntza-unea izan zuen lehenengo, eta gero, nahikoa luzaroan eutsi ahal zien hegoaldeko eskualdeei bere eskuetan. Aro Modernoan, lehenengo batean (XVI-XVII. m.), ez zen aldakuntza nabarmenik gertatu euskararen eremu geografikoan.

Arabatik pasatako bidaiai italiarrei zor diegu XVI. mendeko euskarari buruzko zenbait berri jakingarri: A. Navagiero eta G.B. Venturinori zertzelada soziolinguistikoren bat, eta N. Landuchiori (1562) garaiko euskara batez ere euskalki "hegoaldetar" arabarretik jasotako hiztegia.

Arabako hizkuntzen banaketa geografiko eta soziala labur eta argi eman zuten lehenengo biek: "Gasteizen gaztelaniaz egiten da, baina ulertzen dute euskara, eta [Arabako] beste herri gehienetan hizkuntza hau da hitz egiten dena", dio Navagierok (1528). Venturinok, berriz, xehetasun sozialago hau dakar: "Bertan [Gasteizen, alegia] herritar arruntek «bizkaiera» edo «euskarra» hitz egiten dute —esan ohi duten bezala [Biscaino ó Bascongado, dio berak]—, hizkuntza zaila oso ikasteko, aldi berean nobleak gaztelaniaz argitasun osoz mintzatzen diren bitartean"(1572).

LOS "AMIGOS DEL PAÍS" ALAVESES (1772)

Un grupo de "Amigos del País" alaveses planteó a la Sociedad Bascongada la necesidad y conveniencia de introducir el euskera en las escuelas del País Vasco, con una contundencia que debió de molestar a algún sector de la asociación patriótica. El debate que siguió resulta interesante para conocer la historia de la ausencia/presencia del euskera en el sistema educativo del País.



Bizpahiru datu azpimarra daitezke hemen:

- a) Navagierori Arabako lurraldea batez ere euskaldun bezala agertu zitzaion bere bidaian (*delle uille il più parla Biscaino*).
- b) Hiriburuaren eta probintziaren arteko aldea ondo marraztuta geratzen da bi testuetan: Gasteiz da erdararen gune nagusia, baina hor ere euskara ez da guztiz baztertu, 1528ko gasteiztarrek euskara ere ulertzten baitzuten, eta askok hitz egin ere bai, noski, kasik berrogeita hamar urte geroago Gasteizko herri-herriaren hizkuntza bezala ageri baita.
- c) Gasteizko gaztelaniarekiko atxekimendua,

artean batez ere klase sozial jasoarena zen, ez, nonbait, herritar xumeena (1572).

Eliz iturrietatik jakin dezakegu XVI.eko euskaraz zerbaite gehiago. Adibidez, 1565eko gotzain-erabaki bati jarraiki, Gazeon euskaldun elebakarrak bizi zirela, hango herritarrei Trentoko Kontzilioaren albiste-emeateak euskaraz nola egin behar izan zitzaizkien esaten baitzaigu agirietan. Hamarkada pare bat geroago, 1587an, Nafarroako hizkuntzarteko mugalde zabala Kanpezu eta Orbisoren parean zegoen, Gasteizko seminarioko agiri batek dioskunez,



eta horregatik ez gaitu sobera harritu behar Lagraneko euskararen oihartzunak ere entzuteak (1569/1726).

Berrikitan M. Portillak hainbat erretore- etxetan euskal hizkuntzari buruzko albisteak jaso ditu, XVI-XVII. mendeetakoak. XVII.aren lehen partean Lautadara eta ekialdeko Aranara hurbildu izan bagina, herriak euskaldun hutsak zirela ikusi ahal izango genukeen: Arriola (1614) eta Ezkerrekotxan (1655), nahiz Ulibarri-Arana edo Kontrastan (1622). Trebiño bera ere ez zegoen euskararen barrutitik albora, XVI. mendean.

Arabako errealtitate sozial honek eraman zuen Eliza bere ihardueran euskara ere aintzakotzat hartzen. Trentoko pastoral-arrastoari segiz, Kalagurriko gotzain arabarra (B. Díaz de Luco, 1544-1555) eta beraren hurrengo ondorengoa nahikoa garaiz (1565) arduratu ziren predikuak euskaraz ere egin zitezen. Alde honetatik —geroago ikusiko zenaren alderantziz— erreforma katolikoaren lehen pausoak ez ziren hain desegokiak izan. Hizkuntz politika hori, bestalde, formalki arautuago geratu zen dotrina-predikuetarako XVII. mendeko eliz sinodalen bidez (Kalagurri 1621, 1700).



LANGARIKA, KONTRASTA (s. XVII)

En Langarika (Llanada alavesa, 1655) o en Kontrasta (al Sur de la Sierra de Encia, 1622) sus habitantes eran, al menos, en el siglo XVII, vascoparlantes monolingües casi en su totalidad, pues se necesitaron intérpretes para poder recoger diversas pruebas de nobleza.

Alava, en la comunidad lingüística euskaldun (1991)

| Territorio | Erdaldunes | Cuasi-euskaldunes | Euskaldunes | Euskaldunes % |
|--------------|----------------|-------------------|---------------|---------------|
| Araba | 190.981 | 53.581 | 22.995 | %8,60 |
| Nafarroa | 420.431 | 30.576 | 52.023 | %10,34 |
| Bizkaia | 687.875 | 233.264 | 215.219 | %18,94 |
| Iparraldea | 122.780 | 14.715 | 71.527 | %34,22 |
| Gipuzkoa | 235.918 | 123.691 | 305.403 | %45,92 |

FUENTES: Eustat, y Secretaría General de Política Lingüística (Gobierno Vasco)

Alava, con sus 22.995 euskaldunes (1991), casi ha duplicado el número de sus euskaldunes en el último siglo y cuarto (Velasco, 1867: 12.000). En el contexto general del País, actualmente hay dos provincias vascas con un número menor de euskaldunes: Baja Navarra y Zuberoa.

EL EUSKERA EN ALAVA

En el territorio de la provincia de Alava (3.047 km²), viven 272.447 habitantes (1991). De ellos, prácticamente 23.000 son vascohablantes (el 8,60% de su población total), al tiempo que otros 53.581 son cuasi-euskaldunes en uno u otro grado (20%).

Breve nota histórica

Esta comunidad hablante ha heredado en Alava una larga tradición lingüística que perdura en este territorio desde hace al menos varios milenios, tal como puede verse en el texto general euskérico y las notas gráficas de este cuaderno.

Características propias de esa historia han sido en Alava la larga convivencia con otras lenguas como el latín o el romance castellano y el dinamismo expansivo del euskera medieval alavés (hacia Burgos y la Rioja), así como la continuidad del mismo en amplias comarcas hasta el XVIII y en ámbitos más reducidos hasta nuestros días.

Junto a la comunidad hablante hay que recordar a los alaveses que contribuyeron al uso culto y escrito del euskera, aparte de los intelectuales (historiadores, pensadores, periodistas, etc.) que reflexionaron sobre él y mantuvieron viva la memoria alavesa del mismo. Podemos recordar a Betolaza (1596), J.B. Gamiz (Sabando, 1696-1773), P.I. Barrutia (Aramaio, 1682-1759), J.P. Ulibarri (Okondo, 1775-1847), y en nuestro

siglo al académico R. Olabide (Gasteiz, 1869-1942) o al gramático recientemente fallecido, A. Urrestarazu "Umandi" (Araia).

Se hace preciso subrayar que los cambios habidos desde mediados del XIX (1867) no han reducido el número de vascohablantes de Alava, y que, a pesar de los retrocesos territoriales, se ha dado una recuperación social y funcional del euskera en la provincia (casi se duplican los hablantes, según cifras de 1991, y el euskera se hace presente en ámbitos nuevos: enseñanza, medios de comunicación, administración, etc.).

Sociología actual del euskera

Casi dos tercios de los euskaldunes alaveses viven en Gasteiz (concretamente, 15.188), mientras las demás Cuadrillas quedan lejos de esa cifra: Aiara, 4.258; Zuia, 1.829; Agurain, 724; Laguardia-Rioja, 662; Kanpezu-Montaña, 172; Añana, 162.

Hay que señalar también que Alava tiene algún municipio entre los de más alto porcentaje de euskaldunes de todo el País Vasco: Aramaio, 85,94% de vascohablantes. Hay que destacar igualmente que 17.720 hablantes (77% de todos los euskaldunes) viven en zonas urbanas, en tanto que 5.275 (23%) residen en zonas rurales; la población vascófona alavesa es, por tanto, principalmente urbana, mientras la de Gipuzkoa, por ejemplo, se reparte en dos mitades similares en zonas urbanas y rurales.

Población vascófona alavesa, por comarcas(1981-1991)

| Comarcas | Euskaldunes 1981 | Euskaldunes 1986 | Euskaldunes 1991 |
|---------------|------------------|------------------|------------------|
| Valles | 39 | 45 | 89 |
| Llanada | 6.559 | 12.235 | 16.080 |
| Montaña | 20 | 77 | 172 |
| Rioja | 80 | 307 | 662 |
| Gorbea | 2.194 | 1.758 | 1.734 |
| C. Cantábrica | 1.443 | 3.002 | 4.258 |

FUENTES: Eustat (1984, 1988, 1994) y Secr. General de Política Lingüística (Gobierno Vasco)

En el estadillo adjunto puede verse, en cifras absolutas, la evolución de la población vascófona alavesa a lo largo de la década de 1981-1991. Los desarrollos más significativos, por números absolutos o por porcentajes, parecen corresponder a la Llanada (que incluye Gasteiz) y a la Rioja que pasa, en este caso, de 80 a 662 vascohablantes.

ALAVA: UNA COMUNIDAD LINGÜISTICA CAMBIANTE

Conocimiento del euskera (1981-1991)

Desde finales del siglo XVIII Alava ha conocido cambios sustanciales en cuanto al territorio del euskera. Bonaparte, Velasco y Broca por los años sesenta del siglo pasado, y ya en nuestros días Yrizar (1972), han descrito el estado de la cuestión.

Fuentes de información más recientes y detalladas (Censos de 1981 y 1991, Padrón de 1986) nos sitúan ante datos novedosos: el retroceso "tradicional" ha cambiado de signo, de forma clara, y lo mismo en cifras absolutas que porcentuales se constata un crecimiento positivo de la comunidad vascohablante.

De 9.693 euskaldunes en 1981 (3,88% de la población) Alava ha pasado a 22.995 hablantes en 1991 (8,60%). Como dato llamativo se puede señalar el saldo positivo que se ha dado en el proceso de bilingüización euskérica en numerosas poblaciones de la Rioja Alavesa.

Este cambio de orientación positiva en el desarrollo social de la lengua responde a factores de considerable entidad: a la evolución demográfica de estos años (incluida la acogida de inmigrantes vascófonos), a la actividad pro-euskérica de colectivos sociales, y a la política lingüística oficial que ha favorecido un bilingüismo más efectivo (enseñanza, administración, medios de comunicación, etc.).

Conocimiento por comarcas

Como cabía esperar, esta evolución positiva del euskera en la sociedad alavesa no ha conocido la misma intensidad en todas las comarcas de la provincia, ni el mismo ritmo a lo largo de la década.

Es la Llanada (con Gasteiz) la que presenta indicadores más dinámicos: prácticamente duplicó su colectivo euskaldun entre 1981 y 1986, creciendo en el lustro siguiente un tercio más (de 12.235 hablantes a 16.080, en 1991). Aunque las cifras absolutas sean modestas, hubo también un crecimiento —más bien inesperado por sus características socio-históricas— en la Rioja Alavesa: de 80 vascoparlantes (1981) se pasó a 662 (1991). Igualmente la Cuenca Cantábrica alavesa (Amurrio, Aiara, Artziniega, Okondo) requiere un apunte: la comarca ha pasado de 1.443 vascoparlantes a 4.258 en 1991 (295% de crecimiento en la década).

Lógicamente esta mejora en el conocimiento ha estado acompañada por actitudes favorables, y cabe esperar que favorezca también el uso del idioma.

Actitudes personales y uso

En estos cambios, las actitudes de los alaveses —fueran éstos castellanohablantes monolingües, bilingües pasivos o bilingües— han revestido una importancia significativa y posiblemente determinante del proceso.

En efecto, el 83% de los alaveses castellanohablantes monolingües no se siente discriminado por desconocer el euskera, y el 41% de ellos se muestra a favor de la lengua vasca. Las acciones de promoción social del euskera en radio, prensa y administración pública reciben un apoyo decidido de los alaveses, según encuesta de 1991 (por ej., un 67% ve razonable la aparición de un diario euskaldun monolingüe). Todo esto ha sustentado la legitimidad socio-política del cambio operado.

En cuanto al uso del euskera, al igual que en el resto de la CAV, son los jóvenes los que más lo utilizan en casa, siempre que se les ofrezcan condiciones objetivas similares a las de los adultos.

Gizarte zibilaren eta agintarien hizkuntz ohiturek ez zuten, zoritzarrez, antzeko biderik eraman. Aipatu izan da, inoiz aurkitu gabeko euskarazko udal akten libururen bat, Koartango aldean (XVI. m.); baina Araban ere (garai beretsuan Bizkaian eta lehenagotik Gipuzkoan bezala) erakundeen bilkura politikoetara zetozenei erdara jakitea eskatu nahi zitzaien (Iruraitz, 1682), horrela, bide batez, arau horiek arabar askoren elebakartasun euskalduna azpimarratzen zutela.

16
Betiere handi-mandian izan arren, XVIII.ak xehetasun berriak dakarzkigu Arabako euskarari buruz: 1787.aren ondoko oinarrizko agiri bat daukagu, lehenik; eta azkenik, zenbait arabarren lumatan euskararekiko kezka orduan agertu zen espreski.

1787ko hori Prestamerori (1733-1816) zor diogu: *Pueblos de Alava por Vicarías* darama izenburutzat. Dakartzan xehetasun guztietan sartu gabe, Prestamerok utzi zigun baieztapen orokorra zera da: "hablan el idioma bascongado muchos pueblos de la Vicaría de Vitoria, todos los de Gamboa, los más de Salvatierra (los de la de Mondragón), Cigoitia, Zuya, Orduña, Ayala (Orozco) y Tudela", dio agiriak.

HISTORIA CIVIL
DE LA M. N. Y M. L. PROVINCIA
DE ÁLAVA,
DEDUCIDA DE AUTORES ORIGINALES,
Y DOCUMENTOS AUTÉNTICOS.
TOMO PRIMERO.

Comprende su antigua y moderna Geografía y el gobierno político y militar.


Por D. Joaquín Joseph de Landázuri y Romarate, hijo de la misma Provincia.



En Vitoria, por Baltasar Manteli, Impresor de la Ciudad, y de la R. S. B.
MDCCXCVIII.

HISTORIA CIVIL DE ALAVA (1798)

J.J. Landázuri —clásico historiador de la provincia (1730-1805)— en su *Historia Civil de Alava*, entendió el vascuence como parte integrante del patrimonio histórico-cultural de los alaveses. Alarmado ante el retroceso que en sus días sufría el idioma en el territorio alavés, pidió medidas que lo protegieran y aseguraran su pervivencia en la Provincia, porque entendía que la lengua vasca era "lenguaje que siempre ha sido característico de estas tres Provincias bascongadas".



ALAVA VASCOHABLANTE (1787)

De la mano de D.L. Prestamero (hijo de Peñacerrada, 1733-1816), su escrito titulado *Alava por Vicarías* ofrece la oportunidad de conocer cuál era la línea interlingüística que, en las últimas décadas del siglo XVIII, separaba a poblaciones alavesas vascofonas de las castellanoparlantes. Del mismo documento se deduce que las que rodeaban a Gasteiz seguían siendo todavía euskaldunes.



Baina Arabako euskararen eremu ez hain hertsi horrek ez zuen esan nahi, hizkuntzak herrialde arabarrean jada osasun ona zuenik. Arabar eskolatuek —urreko mendeetakoek baino areago— kezkati begiratzen zuten euskararen atzerakada bizia, eta hizkuntz galera horren arrazoi bezala hauek eman izan zituzten: 1) Apaiz erretoreen utzikeria, eta ondorioz, euskararen itzal sozialik eza, 2) Arabaren geografia irekia eta gaztelaukiko harreman ugariak, eta 3) Garaiko eskolak zuen hizkuntzekiko pedagogia itxuragabea.

Eskolaren honek ahots suminduak ere piztu zituen Araban. Bata sarritan izan da gogoratua, Aita Agustín Kardaberazek aipaturiko kapitain arabarrarena, alegia (1761); bigarrena, ostera, ez da hain ezaguna: Arabako zenbait “Adiskidek” Zalduntxoen Elkarteari bota zion erronka (1772-1775). Bietan bat bera zen eskakizuna: euskara, eskola-zereginetan sartzearena.

M.B. DE MORAZA (1817-1878)

En el año 1876 —crítico momento final de las Instituciones Públicas tradicionales del País Vasco— la voz de Mateo Benigno de Moraza fue la más escuchada de todas las que asumieron su defensa política. Moraza evocó, aunque con la nostalgia de no poseerla, los valores culturales e incluso socio-políticos de la lengua vasca. Su famoso *Discurso de julio de 1876* recoge, entre otras, estas ideas referentes al idioma.


ODON APRAIZ (1896-1984)

El Dr. Odón Apraiz Buesa cumplió un paciente camino de información y reflexión culturales acerca del euskera en Alava. Colaborador de la *Revista Internacional de Estudios Vascos* (de J. Urquijo), no desdenó el trabajo periodístico que contribuyera a un conocimiento más generalizado del pasado. Miembro de la Academia Vasca desde hora temprana (1919), formó parte del grupo "Baraibar"; años después llegó a ser designado Académico de Honor de Euskaltzaindia (1968), y homenajeado públicamente por la institución (1976).

"El Amigo alabés" bezala sinatzen zuen talde arabarrak, eskolan, gaztelaniaren aurretik, euskara sartzea eskatu zion Adiskideen Elkarteari, jakitun aurreratuenen eredu eta iritziak argitara ekarriz. Eskariak ez zuen Elkartearengandik erantzun ireki eta emankorrik jaso, eta Arabako haur-eskolek lehengoan segitu zuten, ondoko mendean Mendibil arabarrak (1788-1832) minduta gogoratuko zuenez. Arrasto honetatik jarraituz, Okondoko Ulibarriko (1775-1847) Araban ezaguna zen eskea berritu baizik ez zuen egin geroxeago.

Ordurarte Araban, eta Euskal Herrian ere, agertu gabeko kezka hauek guztiak ikusita, pentsatu ere pentsa liteke arabarrek aurrea hartzen ziotela, ia mende bat geroago Nafarroan jaiko zen Pizkundeko euskaltzaletasunari.

Zalduntxoen artean evezik, Arabako historilarien artean ere piztu zen hizkuntzaren kezka. Landazuri dugu zinezko euskaltzale bezala agertu zitzaina (1798), euskararen galeraz bere tristura hunkitua azalduz: "*Pérdida lamentable [Arabako euskararena, alegría] y digno objeto de toda atención posible en busca de medios para conservar y*



aun aumentar el uso de un lenguaje que siempre ha sido característico de estas tres Provincias bascongadas". Hala ere, Landazuriaren egunetan, aurreko mapan ikus daitekeenez (1787), hainbat herri arabar (orduantxe erdalduntzen ari zena, hain zuzen) artean euskalduna zen.

Euskara berreskuratzeko Landazurik erakutsi zuen gogoa, ondoko hamarkadetako hondamendiaren ondoren, gehitu baizik ez zen egin arabar eskolatu eta herri-maitaleen artean.



R. de OLABIDE (1869-1942)

El Padre Raimundo de Olabide, jesuita, es el primer alavés Académico de Número de la Real Academia de la Lengua Vasca (1919). Fue encargado de la consulta y redacción del Anteproyecto de Estatutos para la Institución que iba a crearse por las cuatro Diputaciones vascas.

Su obra magna

—sorprendente en quien aprendió de adulto el euskera— vino a ser la versión completa de la Biblia al vascuence, obra publicada póstumamente (*Itun Zar eta Berria*, 1958). Su recuerdo ha quedado ligado a la denominación de calles, plazas e instituciones de enseñanza de Alava.

Aro Garaikidearekin, beste lekutan bezalatsu, Araban ere bizkorra izan dira aldakuntzak egoera soziolinguistikoan: euskaldungoaren galerak larriak bilakatu ziren Estatu modernoaren hizkuntz trasmisio-tresnek inoiz baino indar handiagoa hartzean (eskola eta administrazioak, soldadutzak edo kultur bitzia gidatuak), horiek guztiak gaztelania hartu baitzuten hizkuntza ofizial bakartzat.

1850etik 1950era doan mendeko euskara arabarraren albisteak Odon Apraiz Buesak bildu zituen liburuska batean: *El vascuence en Vitoria y Alava en la última centuria (1850-1950)*, (Gasteiz, 1976). B. Etxenike nafarra, Bonaparte Printzea (1863), Paul Broca antropologo frantsesa (1868, 1874) eta L. de Velasco gasteiztarra (1879) dira Apraizek XIX.eko egoeraz eman zuen maparen iturri nagusiak.

Hemen ezin gaitezke sar herriz herriko eta berriemaile bakoitzaren araberako eztabaidatan, baina irakurleak jakin beza argibide gehiagoren bila zein iturritara jo dezakeen. Oro har, 1850erako sintesia aipatutako Apraizen liburuaren II. atalburuan aurki liteke: "El vascuence en Alava y Vitoria en 1850" (11-25. or.). Velascoren zifrei segitu nahi balitzaie, 12.000ren bat euskaldun ziren orduko Araba osoan (1867): Herrialdeko biztanleetariko %9,59 pasatxoa, alegia.


Handik hona mende baten buruan, euskalduntzat eman izan ziren herriean 10.500etatik (Velasco, 1867-68) 1.863 mintzatzailetara (Yrizar, 1972) jaitsi zen euskaldunen kopurua (galera-prozesu horren euskararen aldeko atzera-iraulketa berrikitan hasi da, 1981-91).

Esan beharrik ez dago: hizkuntz hondamendiak XVIII. mendeko intelektual arabarrok hunkitu zituen bezala, hurrengo mendekoak ere —oraingoan Eusko Pizkundearen haizeek jota ere bai— urduri agertu zirela begibistan zuten ondare-galera horren aurrean. Pentsatzaile eta idazle arabarrok ez ziren isildu errealitye mingarri haren aitzinean.

Arabatik Euskal Herriaren etorkizunaz —eta herrialdearenaz, noski— arduratu zirenetako batzuek hizkuntzaren arlo hau ere gogoz begiratu zuten: XVIII.ean Egino, Landazuri edo Prestamero bezala, Arabako euskaltzaletasuna bere testuinguruan ulertzeko gogoan hartzekoak dira XIX.ean P. Egaña diputatu nagusi eta ministraria (1803-1885), M.B. Moraza irakasle, probintziaren guraso eta diputatua (1817-1878), R. Ortiz de Zarate kazetari, diputatu nagusi eta "Laurak Bat"-zalea (1817-1883), L. de Velasco idazle eta

F. BELAUSTEGIGOITIA (1877-1947)

Federico Belaustegigoitia, de familia laudiotarra, estudió en Orduña, Madrid y Deusto. Atendió por igual a la difusión de ideas en pro del euskera, que a la promoción de iniciativas sociales que contribuyeron a la normalización de la lengua. A su labor de periodista hay que agregar la publicación de métodos de enseñanza, de ensayos sobre la lengua *standard*, y su incansable actividad desde la Diputación de Bizkaia y Euskaltzaindia.



hiriburuko alkatea (1817-1891), F. Herran kazetari eta argitaratzailea (1852-1908), R. Becerro de Bengoa diputatu-senatore eta idazlea (1845-1902), F. Baraibar kultur gizon eta diputatu nagusia (1851-1918), etab. Politikari eta intelektual hauen liburu eta kazetal lanak askorentzat izan ziren eskola suharra.

Eragile hauei esker, euskararen aldeko ekimen berriak sortu ziren Araban, eta baita talde euskaltzaleak ere, egitarau iraunkorragoak sustatu eta gidatzeko. Horren

adibideak ez dira falta. Batzarreek Aizkibel euskalariaren eskuizkribuez espreski arduratu ziren (Eltziego, 1867), eta lehenagoko kezka zaharrari erantzunez, euskararen alde irakas-saila urratu nahi izan zuten, Gasteizko seminarioan euskal katedra baten sortzea proposatuz. Euskara zaintzeko irakaskuntzaren premiaren hau behin eta berriz errepikatu zen Araban (1873, 1878, 1885).

Euskararen aldeko elkartea eratzeko asmoa ere aldian aldika entzuten da hamarkada haietan. Badugu "Asociación de la Historia y de la Lengua Vascongada" baten berririk. Bestalde, euskal akademia baten ametsa, jakina denez, arabar batek iradoki zuen lehenik, J.P.Ulibarrik (1832), eta asmo horri Aldundietatik bidea urratu nahi izan zitzaionean (1907), Arabatik ere herrialdeak



BARAIBAR TALDEA (1928)


A semejanza de lo que sucediera en Donostia e Iruña, en los años veinte también en Gasteiz nació una agrupación euskerista que impulsó, en el seno de la Sociedad de Estudios Vascos, actividades en favor de la cultura y lenguas vascas. Se denominó "Baraibar" en recuerdo de quien fuera autor de tan excelentes trabajos sobre la lengua de los alaveses, Federico de Baraibar.

akademian beharko zuen bere ordezkaritzaz idatzi zion Azkueri F. Baraibarrek.

Euskaltzaindiaren sorerra-unea iritsi zenean, Arabako Aldundiak ere bere atxekimendubaietza eman zion, noski, eta gasteiztar bati zor diogu akademiaren lehenengo arautegigaia, Aita E. Olabideri. Berau izango zen berehala lehenengo euskaltzain arabarra.


Gerraurreko hamarkadetan, gogoratu beharra dago zenbait talderekin batera, gizabanako leinargirik ere Arabako euskalgintzan. F. Belaustegigoitiak (1876-1947) lan gaitza bete zuen, euskararen eguneratzea bultzatzen eta ideia berriak sustatzen; Aita Olabide josulagunak (1869-1942), berriz, bestelako terminologi eta itzulpen-zereginetan egiteko erraldoia bete zuen (*Gizasoña*, 1917; *Itun Berria*, 1931;

Itun Zar eta Berria, 1958). Horiekin batera, baina gazteago, Odon Apraiz Buesarena izan da Arabako euskararen lekukotasun historiko puntarena; kasu honetan, gerrateondoan ongi luzatua, gainera (+1984). Azkenik, hilberria dugun Andoni Urrestarazu “Umandi” (+1994) araiarraren gramatika-lana gerrateondoan askorentzat izan da zinezko eskola.



N. LANDUCHIO (1562)

El *Diccionario* del italiano Landuchio, aparte del interés general que reviste, ha contribuido a definir un dialecto extinto de la lengua vasca, designado como dialecto “meridional”. Tal modalidad de la lengua se ubicaría en Alava, siendo precisamente su variedad más propia.



ULIBARRI: GUTUN-LIBURUA

El *Gutun-liburua* (publicado en edición facsimilar por la Diputación de Alava, 1975) es una obra singular, dado su carácter de recordatorio personal y su contenido heterogéneo. Incluye la correspondencia del autor, escritos literarios, demandas políticas en pro del euskera y otros muy variados textos. Por su carácter tan peculiar, es, seguramente, la aportación más original de los escritores alaveses a la literatura vasca.

Horien lana, ordea, ez zen basamortuan egindakoa gertatu; bazen urte haietan, esan bezala, talde arabar euskaltzalerik ere, beste aurreko haien asmoak jasota bideak samurtu nahi izan zuenik. Bat, bederen, Gasteizko seminariotik ari zen, Barandiaran eta Lekuona apaizen inguruan bilduta (1916tik aurrera), eta "Kardaberaz" mintegian elkarturik (1924). Gogoratu izan denez, ez zen hori seminarioko lau hormen artean ito eta bukatu.

Horiek horrela, hona ekarri beharra dago "Baraibar" talde euskaltzalearen notizia. Eusko-Ikaskuntzaren barnean jaio zen hau, belaunaldi berriaren eskakizun euskaltzale urduriagoei irtenbiderik emateko (1928); geroko zenbait gidari abertzale gazte ezezik (X. Landaburu) tartean izan ziren Barandiaran eta Lekuona ere.


Urrats berri haietan eta beste hainbat ekimen euskaltzale gerratearekin eten baldin bazen ere, Araba saiatu zen bere tradizio euskaltzalea zaintzen eta, ahal izan zenetan, ekintza berritzaileak sustatzen. Oro har, esan beharra dago 1939-1975.eko hamarkadetan herrialdeak aldakuntza bizkor eta sakonak jasan dituela: mendearen hasieratik ia beti migrazio-saldo negatiboak izan ondoren, 1951-1978etan biziki positiboak izan ditu Arabak bizilagunetan (adibidez, 1961-1970: + 42.547).

Herrialdeko euskaldungoa eta euskaltzalegoa, testuinguru politiko jakin batean ezezik, inguru demolinguistiko berri horrekin aurkitu da, euskalgintza bultzatzean.

Hona iristean, interesgarri izan liteke euskalgintzaren zenbait une eta barruti berezi aipatzea bederen. Arabako erakundeek eta gizartea zuzenean parte hartu izan dute Euskaltzaindiaren ospakizunetan (Urrezko Ezteiak, 1969), nahiz idazle arabarren omenaldietan (Gamizi Gasteiz eta Sabandon, 1973; Ulibarri Okondon, 1975; O. Apraizi Aldundian, 1976), edo euskaltzain berriaren sarrerakoan (Olabideren ondoren bigarren euskaltzain arabarra den E. Knörrenean: Gasteizen, 1978).

Baina Arabako euskalgintza berria irakaskuntzan eman diren pauso berrieta, edo alfabetatze-euskalduntzearen lanetan bete da batik-bat, bertsolaritza nahiz hizkuntzaren aldeko bestelako ekimenak ahantzi gabe (kanta berria, komunikabideak, "Araba euskaraz" (1981), etab.). 1960-70.eten ikastola izan zen euskal eskola berrirako

ekimen aitzinatuena (Olabide, 1963). Aipatzeko da 1979tik hona ikastolek, Arabako Ikastolen Elkartearen eskutik, egindako hedatze lana. Elebitasuna irakas-munduan ofizialki garatzean, irakas-sistema osoa dugu euskalgintzan sartu dena (betiere hizkuntz erduei jarraituz). Bide horretatik, 1990ean, Arabako eskola publikoetan irakaslegoaren %33,06k euskara emateko EGA edo IGA titulua zuen, esate baterako.



F. BARAIBAR (1851-1918)



Federico Baraibar y Zumarraga cumplió un fecundo papel de animador y guía de iniciativas culturales en Gasteiz. Profesor y director del instituto, fue lexicógrafo y arqueólogo, entre otras actividades. Colaboró en diversas publicaciones, entre las que debe contarse la *Revista Internacional de Estudios Vascos*, publicación dirigida por J. Urquijo (1907) con el que Baraibar mantuvo una breve y amistosa correspondencia. Apreciado por Schuchardt, fue intelectual de enorme modestia y eficacia.

O. ALEA

Gasteiz, 1992ko Uztaila

«ZELEDON»
Hamahiru urtez
zintzilik egotearen
gozamena


«BAGARE»
SOLASKIDE
Euskal tokien
aintzindari
Gasteizen



Arabako euskaldungoak gorabehera handiak ezagutu ditu mendeetan: batzutan gora, bestetan atzera. Nabaria izan da, alde batetik euskaldun arabarren dinamikotasuna, eta bestetik, Antzinatean, Erdi Aro osoan eta Modernuko lehen mendeetan erakutsi zuten haien beren eutsi-indarra.

TRADICION Y MODERNIDAD

Como todo idioma vivo, también el euskera debe atender a perdurar sus funciones sociales tradicionales, al tiempo que se cuida de asumir en sus usos cotidianos las nuevas formas de expresión moderna. Los vascohablantes alaveses contribuyen actualmente con eficacia al desarrollo de esa doble vertiente de tradición e innovación. En la foto, el compact disk del grupo vitoriano *Hertzainak* (rock en euskera), *Geu Gasteiz* (publicación alavesa en euskera) y el bertsolari Gz. de Durana.



Hitzungoaren egokiera historiko larrieta buru pentsatzailerik izan du Arabak bere herritarren artean. Hizkuntzaren kontzientzia eta oroimen historikoa gordetzeko beroriek eskaini duten gogoeta eta burutu duten bilketa-lana azpimarratzekoak dira.

Zenbait arabarrek aurrea hartu zien gainerako euskaldunei hizkuntzaren modernitate-tresna ere baden euskal eskolaren eskea egitean; bestalde, Eusko Pizkundeko euskalgintzan presente egon ziren arabarrak, Araban bertan eta herrialdearteko ekintzetan.

Gerrate ondoko aldats-gora zailaren ondoren, arrazoi demolinguistikoek indartu egin dute arabarren hizkuntz gaitasuna. Hurrengo erronka, euskararen erabilpenarena izango da. Irauteko borondaterik ez da falta, eta indarrik ere ez. Eta lana eskubetean dator.

III. milakadaren atarian eta Europara goazen horretan, hizkuntzaren altxor zaharra aspaldidanik baino biziago du bere baitan Arabak, eta ez iparraldeko mendialdeetan bakarrik, baita Lautadan eta Errionan ere, herrixketan bezala hiriburuan ere. Arabaren modernutasunean txertaturik dago, dagoeneko, bertoko euskara, eta herritar gehienetan borondatearen gain eraiki ahal izango da espero den etorkizun hobea. Landazuri historilari arabar handiaren ametsak egia bihur litezke, bi mende geroago.



